

GAIZKI ERRANKA

Erregimena, titular bakarrean



SANTI LEONÉ

E*l Correok* dio Urkulluk erran duela Puigdemontek bide unilaterala hartu zuela kalea “matxinatzen ari zitzaielako” –komatxoak *El Correorenak* dira: hitzez hitz biltzen omen du titularrak Urkulluk errandakoa-. Lerroa Guillem Martinezen tesien hondarreko degradazioa izan liteke –*procés*eko lider politikoek ez zuten independentzian sinesten; aitzitik, krisi testuinguru batean, beren burua salbatzen saiatzen ari ziren, eta abar-, baina ukitu kontserbadore batekin, hain zuzen ere komatxoen arteko aditzak biltzen duen ukituarekin. Zeren kalea matxinatzea, lagunok, beti da txarra, eta matxinaturiko kaleari kasu egiteak desastrea bertzerik ez du ekartzen ahal.

Esaldi bakarrean, *El Correok* eta euskaldunen lehendakari bakarrak demokrazia formalaren eta 78ko erregimenaren gaineko lezio ederra eman digute: jendeak txintxo-txintxo bozkatzen du, hautaturiko politikariek legeak egiten dituzte, lege horiek – direnak direla ere– lege demokratikoak dira eta protestatu gabe bete beharrekoak. Hortik kanpo, ez da deus. Inork ez zukeen hobeki adieraziko. Tira, norbaitek bai, mintzatzeko maneran ez ezik, nonbait ideologian ere Urkulluren *doppelgänger* den Espainiako erregeak: ustezko demokrazia ez dago legearen gainetik. Kalea matxinatzen bada, erantzuna *a por ellos* da; ez, ordea, inolaz ere ez, matxinatuen buru bihurtzea.

El Correoko lerroburuak gorazarre pixka bat egiten dio lehendakariari, zeinari kalea ez baitzaio matxinatu eta zeinak Espainiaren eta Euskadiren arteko bilateralitasunean konfiantza osoa baitu. Fantasia horrek prozesu independentista bat zer den ulertzeko beharko lukeen gutieneko enpatia ere kentzen dio, eta izua bertzerik ez dio uzten: herritarrak aldarrikapen demokratikoak egiten, eta politikariak haiekin bat egiten? Burugabekeria handiagorik! ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

ADUR

“BATZUEK GORDEA DUTEN GORROTOA AZALERATU DU ZIGOR HONEK”

BIXINTXO BILBAO, PILOTARIA

Munduko pilota txapelketako sari banaketan ikurrina erakusteagatik isuna jarri zioten ziburutarrari. Ondoren, kendu egin zion zigorra Nazioarteko Pilota Federazioak. “Beren buruari Euskal Pilotaren Nazioarteko Federazioa deitzen diote, eta guk ezin dugu ikurrina erakutsi. Hori falta larria omen da. Euskal pilotari gisa ez gara onartuak izan, ez baitago selekzionik (...) ez jokatzeari ere ez da konponbidea, (...) nik jokatu nahi dut, eta, irabazten dudalarik, erakustea nongoa naizen, eta nire koloreak erakustea” **BERRIA (2019/02/27)**

